# 8. EMAKUME BASERRITARRAK: LAN GOGOR BEZAIN BUKAEZINA

Lau mendetan baino gehiagotan, euskal baserria sistema ekonomikoaren ordenaren adierazgarri izan da, eta Euskal Herriko nekazaritza-munduko bizimodua gobernatu zuen. Emakumeen zeregina ezinbestekoa izan da bizimodu horri eusteko orduan. XX. mendean, ordea, euskal baserria eta bere balioak modu nabarian desorekatu ziren, teknologia berriak eta industria bultzatu zirenean. XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, emakumeek sendo jarraitu zuten hondoa jotzen ari zen sistema hori zaintzen. Emakumeei esker, euskal baserriak bere horretan iraun du gaur arte.

2018. urtetik, Erabide Emakume Elkarteko kideek Esnezalearen Eskulturari tokilla jartzen diote apaingarri moduan, eta Galdakaon emakumeei buruz dagoen eskultura bakarra da. Horrela, aldarrikatu egiten dute emakumeen agerpena oso urria dela eremu publikoetan dauden sinboloetan.

Urriaren 15a Landa Inguruneko Emakumeen Nazioarteko Eguna da.

## BAZENEKIEN...

2022an, Bizkaiko Aldundiak “Baserritarra eta harro” azterlana aurkeztu zuen, eta bertan jasotzen da 1.431 emakume baserritar daudela; Gehienek genero-desberdintasunak daudela azpimarratu zuten: emakumeen %83,6k gizonek baino etxeko eta familiako lan gehiago egiten dituzte, eta %51k-edo erresistentziei aurre egin behar diete erabakiak hartzeko orduan, eta ustiategiaren titulu gutxiago ere badauzkate, gainera.

## MI(cro) RELATO

**Antes de clase**

Hoy estreno cantina, la jarra se me rompió ayer cuando tropecé y me caí. Por el camino me encuentro con la lechera y con Perico, su burro, reparten por las casas. Les saludo, pero tengo prisa, ni siquiera me quedo a hablar con mi amiga Luisa que ha salido al portal con su cántaro. Voy a ver cómo mi tía

ordeña a La Rubia, mi vaca preferida. Y a comer un trozo del pastel de nata antes de que mis primos lo liquiden.

*B. A.*

## ESTEKA INTERESGARRIAK

https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO3/Temas/Pdf/pdf/castellano/Situaci%C3%B3n%20de%20la%20mujer%20en%20el%20sector%20rural.pdf?hash=3675da27d5113aa02b0f60a9c78df7c5&idioma=EU

https://www.bizkaia.eus/es/web/comunicacion/noticias/-/news/detailView/24914